

# Sokoan ETaren zulo bat zegoenik ez zekitela esan dute bi auziperatuek

Atzo hasi zen Madrilen Gogorzaren eta Zabaletaren aurkako epaiketa

**/Sokoako paperen' epaiketa atzo hasi zen Madrilgo Entzutegi Nazionalan. Jose Antonio Gogorza Zugarramurdi eta Juan Luis Zabaleta Elosegia auziperatuek adierazi zuten, ez zekiten Soko kooperatiban ETaren zulo bat zegoenik eta GALen beldur zirelako ematen zituzten han gauak.**

MADRIL

Gogorza Zugarramurdi eta Zabaleta Elosegia 1986ko azaroaren 5ean atxilotu zituzten Hendaiko Soko kooperatiban. Operazio hartan arma eta agiri ugari eta milioi t' erdi libera atzeman zituen Poliziak. Fiskalaren arabera, bi auziperatuak etakideak ziren eta talde armatuaren materiala gordetzen zuten Sokoan. Fiskalak 35 urteko kartzela zigorra eskatu du Gogorza Zugarramurdirentzat eta 28 urtekoa Zabaleta Elosegirentzat, «talde armatuko kide izateagatik eta armak eta leherkariak edukitzeagatik».

Atzo hasitako epaiketan, berriz, bi auziperatuek ukatu egin zuten Sokoan ETaren armak zaintzen gelditzen zirela. Epai-learen aurrean adierazi zuten, GALen atentatuen beldur zirelako ematen zituzten gauak enpresan, baina ez zekiten bertan zulo bat zegoenik.

Zabaleta Elosegik esan zuen ETarekin ez duela zerikusirik eta ez dela egia bere soldataren % 5 talde armatuaren 'erresistentzia kaxara' bideratzen zuenik. Halaber, 1986ko otsailean, Hendaiko 'Batzoki' tabernan zegoela, GALen atentatu bat jasan zuela gogorarazi zuen. Auziperatuaren arabera, GALen beldur zirelako gelditzen ziren lotan Sokoan.

Fiskalak Sokoan atzemandako agiriez galdetu zion Zabaleta Elosegiri, horietan bere izena



'Sokoako paperen' inguruko lehen epaiketa da atzo Entzutegi Nazionalan hasitakoa.

EFE

ageri omen delako. «Ez naiz ni, beste Zabaletaren bat izango da», erantzun zuen auziperatuak. Izan ere, zenbait komunikabidek bere anaia den Jose Javier Zabaleta Elosegia 'Baldorekin' nahastu dute.

Gogorza Zugarramurdik, bestalde, 1977. urtera arte ETako kide izan zela, baina atxilotu zuten unean talde armatuarekiko loturarik ez zuela esan zuen. Horregatik, bere izena Sokoako agirietan zergatik agertu ote den ez zekiela gehitu zuen.

Etakide izatea eta armak gordetzea ezezki, agiri faltsuak egin

izana ere egotzi dio fiskalak Gogorza Zugarramurdi, argazkiak ateratzen omen zituelako talde armatuko kide liberatuentzat nortasun agiri faltsuak egiteko. Haatik, auziperatuak gezurtatu egin zuen 'Santi Potrosen' eta 'Txikiardiren' aginduz argazkiak egiten zituela. Eta Goardia Zibilaren aurrean halakorik esan bazuen, «infernu hartatik» lehenbailehen ateratzegatik izango zela gaineratu zuen.

Epaiaketa ordubeteko atzerapenez hasi zen eta bertan ETarekiko loturagatik kartzela zigorrak betetzen ari diren hiru lagu-

nek deklaratu zuten, lekuko gisa. Juan Manuel Gaztelumendi Uribarrenek eta Joakin Urain Larrañagak ukatu egin zuten Gogorza Zugarramurdik argazkiak egin zizkiela, Poliziaren aurrean esandakoaren kontra. Hirugarren lekukoak, Estanislao Lopez Agiriano, Zabaleta Elosegia Herrera de la Mancha espetxean ezagutu zuela adierazi zuen eta ukatu egin zuen auziperatuak 'arma ikastaro' bat egitea proposatu ziola Hendaian. Lopez Agiriaren arabera, 1985ean proposamen hori egin zionak 'Artapaloren' izenean jardun zuen.

## Gutunak trukatu dituzte HBk eta ETBko 60 langileren ordezkariak


JON ESKISABEL / DONOSTIA

Euskal Telebistako albistegi zerbitzuetako 60 langileren ordezkariak batek gutun bat entregatu zion atzo arratsaldean Herri Batasunako Mahai Nazionalari, ente honetako zenbait kazetari, «eta bereziki Jose Maria Calleja, jasaten ari diren mehatxuak eta irainak» salatzeke eta bertan behera uzteko exigitzeko. HBk bere aldetik, gutunaren sinatzaileei zuzendutako beste gutun bat eman zion langileon ordezkariari, ETBko «manipulazioa» salatzeke eskatuz.

ETBko langileen asmoa gutuna Donostiako egoitzaren barruan ematea bazen ere, kalean egin zen entrega. HBko militanteek pankarta bat zabaldu zuten atarian galderahonekin: 'Zer-

gatik ez duzue ETBn manipulazioa salatzen?'. Elixabete Garmendiak entregatu zion idazkia Roberto Sampedro HBko prentsa arduradunari, eta datozen egunetan Jarrai gazte erakundeari entregatuko diote faxez.

Beren gutunean, ETBren erredakzioko 60 langile hauek «kezka eta haserrea» azaldu dute «ETBko zenbait kazetari, eta bereziki Jose Mari Calleja, jasaten ari diren mehatxu eta irainezko aipamen, pintada eta pankartengatik». ETBko langileok «honelako kanpainak eragiten dituztenak» jo dituzte «aipaturiko profesionalak jasaten ari diren eta etorkizunean jasan litzaketen kalteen erantzule bakartzat», eta ETBko profesionalen lana kritikatzeko «bitarteko zilegi, zibilizatu eta demokratikoak» badaudela azaldu dute.



Kazetariak eta HBko militanteak HBren egoitzaren atarian. GILLENIA

Mahai Nazionalak berriz, ETBko zerbitzu publikoa «HBren kontrako erasorako plataforma» bilakatzea leporatu die «zenbait kazetariri». HBren iritziz, «arazoa ez da protesta nork egiten duen, nork abusatu eta manipulatu duen baizik». Ildo horretan, elkartasuna «ETBren politika informatiboagatik kal-

teturik sentitzen diren milaka euskal herritarri» adierazteko eskatu die ETBko langileei gutunean. «Korporatibismoaren gaitetik, egiaren eta objetibotasun informatiboaren jarduteko etika profesionala dago», gaineratu du. Hau guztia aztertzeke bilera bat eskatu zion HBk ETBko zuzendaritzari.

Ardanzak harrera ofizialak egingo ditu EAEko hiru hiriburuetan

BILBO

Jose Antonio Ardanza Euskal Autonomi Elkarte-ko lehendakariak harrera ofizial bat egingo du ostiral honetan Gasteizen Arabako instituzio eta gizarte ordezkariekin. Ajuria Eneko jauregian izango den ekitaldira Arabako herri guztietako alkateak, Diputazioko ordezkariak, eta ekonomia, gizartea, kultura eta kirol elkarteetako lauhun partaide inguru daude gonbidatuta bertara.

Alderdi politikoetako buruzagiek eta komunikabideek ere hartu dute gonbidapena.

Bilbo eta Donostian ere Jose Antonio Ardanza lehendakariak beste harrera bi izango ditu. Bilboko uztailaren 5ean izango da, eta Donostiako ez dauka datarik oraindik, baina abuztuaren amaieran edo irailaren hasieran izango dela iragarri dute lehendakarietako iturriek. Azken harrera hau Eusko Jaurlaritzak Miramar jauregian izaten ohi duen bilera eguna profitatuz eskainiko du Jose Antonio Ardanza.

1992. urtean egiten hasi zen ekitaldi hau bertan behera utzi zuten iaz Julio Iglesias Zamora Ikusi enpresako ingeniari gipuzkoarraren bahiketagatik protestatzeko. Aurtengoan beraz, bigarren ez egingo dira harrerok.

**LANBROA**

kafetegia edaritegia

konstituzio plaza 5  
if.: 42 19 58  
DONOSTIA